

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA****1781**

AGINDUA, 2005eko otsailaren 21ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena; honen bidez aldatzen da 2003ko azaroaren 20ko Agindua, justizia administrazioko ofizialen, laguntzaileen, agenteen eta auzitegi-medikuen kidegoetan dauden lanpostu hutsak betetzearren, bitarteko funtzionarioak aukeratu, proposatu eta izendatzeari buruzkoa.

Justizia Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionarioen kidegoetako plantilla organikoetan izaten diren lanpostu hutsak ahalik eta azkarren betetzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak 2003ko azaroaren 20ko Agindua eman zuen, Justizia Administrazioako ofizialen, laguntzaileen, agenteen eta auzitegi-medikuen kidegoetan dauden lanpostu hutsak betetzearren, bitarteko funtzionarioak aukeratu, proposatu eta izendatzeari buruzkoa. Agindu horrek kidego horietako lan-poltsen eraketa eta funtzionamendua arautu zuen.

Agindua indarrean zegoen legediari jarraituz eman zen. Hauek ziren arau horiek: Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa; otsailaren 16ko 249/1996 Errege Dekretua, Justizia Administrazioako ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoen Erregelamendu Organikoa arautzekoa; eta otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretua, auzitegi-medikuen kidegoaren erregelamendu organikoa arautzekoa.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak (2003-12-26ko BOE, 309. zenbakia) Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatu du, eta, ondorioz, beharrezkoa da 2003ko azaroaren 20ko Agindua indarreko legedira egokitzea; batik bat, Justizia Administrazioako kidegoen izenari eta horietan sartzeko eskatutako titulazioari dagokionez.

Dagoeneko nahiko eskarmentu lortu da lan-poltsak kudeatzen; hortaz, egokitze ere jotzen da kudeaketa hori erraztuko duten aldaketak sartzeko. Horren ildotik, aipagarria da informatika-proba kendu dela Prozesu eta Administrazio Kudeaketako eta Prozesu eta Administrazio Tramitazioko eta Laguntza Judizialeko Kidegoen lan-poltsetan sartzeko ezinbesteko baldintzen artetik. Hala eta guztiz ere, aurrekontuek horretarako aukera ematen duten heinean, informatika-ikastaroak eman ahal izango zaizkie arlo horretan prestakuntza behar dutenei.

Adierazitako guztiaren argitara, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 472.2. artikulua, 489. artikulua eta hamahirugarren xedapen iragankorrak —abendua-

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL****1781**

ORDEN de 21 de febrero de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se modifica la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir las plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia.

A fin de poder cubrir con la máxima rapidez las vacantes que se producen en las plantillas orgánicas de diversos Cuerpos de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia y garantizar la continuidad y eficacia en la tramitación de los procesos y expedientes, se dictó por el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, regulando así la constitución y funcionamiento de bolsas de trabajo para los distintos Cuerpos mencionados.

La citada Orden se dictó de conformidad con la legislación vigente en el momento, fundamentalmente, la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio de Poder Judicial, y los Reales Decretos 249/1996, de 16 de febrero y 296/1996, de 23 de febrero, por los que se regulan los Reglamentos Orgánicos de los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes al servicio de la Administración de Justicia, y del Cuerpo de Médicos Forenses, respectivamente.

Tras la reforma de la Ley Orgánica del Poder Judicial operada por Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre (BOE n.º 309 de 26-12-2003), resulta necesaria la adecuación de la Orden de 20 de noviembre de 2003 a la vigente normativa, básicamente en lo relativo a la denominación y titulación exigida para el ingreso en los distintos Cuerpos al servicio de la Administración de Justicia.

Por otra parte, con la experiencia adquirida en la gestión de las bolsas de trabajo se ha considerado oportuno introducir diversas modificaciones que favorezcan dicha gestión. En este sentido procede destacar la supresión de la prueba informática como requisito imprescindible para formar parte de las bolsas correspondientes a los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial, sin que ello obste que, en la medida que las disponibilidades presupuestarias lo permitan, se podrá impartir un curso de capacitación informática a las personas que requieran formación en este ámbito.

En virtud de lo expuesto, de conformidad con lo establecido en los artículos 472.2, 489 y Disposición transitoria Decimotercera de la Ley Orgánica del Poder Ju-

ren 23ko 19/2003 Lege Organikoak (2003-12-26ko BOE, 309. zenbakia) horiei emandako idazkera berrian— araututakoarekin bat etorriz, erakunde sindikalekin adostuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari eta Idazkaritza Judizialak Autonomia Erkidegoan duen ordezkartza entzunda, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari berri emanda, honako hau

XEDATU DUT:

Lebenengo artikulua.— Justizia administrazioaren zat lan egiten duten kidegoen izena aldatzea.

1.— Botere Judizialaren Lege Organikoko 475. artikuluan araututakoarekin bat etorriz, hau izango da Justizia Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionarioen kidegoen sailkapena: «Kidego Orokorrak» eta «Kidego Bereziak».

2.— Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen «Kidego Orokorrak» hauek dira:

- a) Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa,
- b) Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegoa, eta
- c) Laguntza Judizialeko Kidegoa.

3.— Horrenbestez, 2003ko azaroaren 20ko Aginduak, Justizia Administrazioko Auzitegi-medikuen, Ofizialen, Laguntzaileen eta Agenteen Kidegoetako lanpostu hutsa betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzkoak, Justizia Administrazioko Ofizialak, Laguntzaileak eta Agentek aipatzen dituen lekuan, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoari, Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegoari eta Laguntza Judizialeko Kidegoari buruz ari dela ulertuko da, hurrenez hurren.

4.— Auzitegi-tako Medikuen Kidegoa «Kidego Berezia» izango da; alabaina, kidego horren izena ez da aldatuko.

Bigarren artikulua.— Kidego orokorretan sartzeko eskatzen diren titulu berriak.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 475. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen kidegoetan sartzeko honako titulazioa eskatzen da:

- a) Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegorako: unibertsitateko diplomatua, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa edo horien baliokidea.
- b) Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegorako: barxilergo titulua edo horren baliokidea.
- c) Laguntza Judizialeko Kidegorako: DBHko graduatu titulua edo horren baliokidea.

Hirugarren artikulua.— Administrazioko Auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen arautegi organikoen aipamenak.

dicial en la nueva redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre (BOE n.º 309 de 26-12-2003), previo acuerdo con las organizaciones sindicales, oídas la Sala de Gobierno y el Secretario de Gobierno ambos, del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco e informado por el Consejo General del Poder Judicial,

DISPONGO:

Artículo primero.— Nueva denominación de los Cuerpos al servicio de la Administración de Justicia.

1.— De conformidad con lo dispuesto en el artículo 475 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, los Cuerpos de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia se clasifican en «Cuerpos Generales» y «Cuerpos Especiales».

2.— Son «Cuerpos Generales» de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia:

- a) El Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa,
- b) El Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa, y
- c) El Cuerpo de Auxilio Judicial.

3.— Todas las referencias a los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia contenidas en la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, deben entenderse hechas, respectivamente, a los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa, y Auxilio Judicial.

4.— Tiene la consideración de «Cuerpo Especial», entre otros, el Cuerpo de Médicos Forenses, si bien su denominación no varía.

Artículo segundo.— Nueva titulación exigida para el ingreso en los distintos Cuerpos Generales.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 475 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, la titulación exigida para el ingreso en los distintos Cuerpos de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia es:

- a) Para el Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa: Título de Diplomado Universitario, Ingeniero Técnico, Arquitecto Técnico o equivalente.
- b) Para el Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa: Título de Bachiller o equivalente.
- c) Para el Cuerpo de Auxilio Judicial: Título de Graduado en ESO o equivalente.

Artículo tercero.— Referencias a los Reglamentos Orgánicos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración.

Justizia Administrazioiko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko 2003ko azaroaren 20ko Aginduak Justizia Administrazioaren zerbitzuko ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoen Arautegi Organikoak aipatzen dituenean, ulertu beharko da aipamen hori Bortere Judizialaren Lege Organikoari egindakoa dela, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak (2003-12-26ko BOE, 309. zenbakikoa) —eta horren arau-garapenak— emandako idazketa berriaren arabera.

Laugarren artikulua.— 1.— Aldatu egin da Justizia Administrazioiko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko 2003ko azaroaren 20ko Aginduko 2. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatiaren testua:

«b) Azken oposizioko lehen ariketa edo lehen eta bigarren ariketa gainditu dituzten oposizio-egileek, bai eta Autonomia Erkidego honetan deitutako eta urte horretan amaitutako oposizioetako lehen ariketa gainditu ez dutenak ere, lan-poltsan sartu behar direnean. Horrela, artikuluko honen 2. paragrafoan adierazitako Kidegoren batera, edo beste edozein lurralde-esparruan, sartu ahal izango dira, eskatzen den Kidegorako Autonomia Erkidego honetan lanposturik ez dagoenean. Kasu honetan, lan-poltsan oposizio-egile horiek bakarrik onartuko dira, eta horrek zera ekarriko du: lan-poltsan dauden guztiek duten oposizioko puntuazioa eguneratzea, eta 4.2.b) artikuluari jarraiki ateratako puntuazioak sartzea.»

Urte batean hautaketa-prozesurik egiten ez bada, abenduaren 31n lan-poltsak irekiko dira bertan dauden pertsonen datuak eguneratzeko. Urtean behin bakarrik eguneratuko dira lan-poltsak.»

2.— Paragrafo berri bat —bosgarrena— erantsi zaio Justizia Administrazioiko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko 2003ko azaroaren 20ko Aginduko 2. artikuluari, honako testuarekin:

«5.— Lan-poltsak irekitzen direnean horietan dauden guztien datuak eguneratuko dira oro har.»

Bosgarren artikulua.— Ezabatu egin da Justizia Administrazioiko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko 2003ko azaroaren 20ko Aginduko 3. artikuluko 4. paragrafoa.

Seigarren artikulua.— Aldatu egin da Justizia Administrazioiko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko

Cualquier referencia hecha en la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia a los Reglamentos Orgánicos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia se entenderán referidos a la Ley Orgánica del Poder Judicial en la nueva redacción dada por Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre (BOE n.º 309 de 26-12-2003), y su correspondiente desarrollo reglamentario.

Artículo cuarto.— 1.— Se da nueva redacción al apartado 4 punto b) del artículo 2 de la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia:

«b) Para la inclusión de opositores/as aprobados en el primer o en el primer y segundo ejercicio, así como los que se hubieran presentado y suspendido el primer examen de las oposiciones convocadas en esta Comunidad Autónoma y finalizadas durante ese año, para el acceso a alguno de los Cuerpos meritados en el apartado 2 del presente artículo o en cualquier otro ámbito territorial, cuando no haya plazas en esta Comunidad Autónoma, para el Cuerpo en el que solicita la inclusión. En este supuesto sólo serán admitidos en la bolsa dichos/as opositores/as y supondrá el recalcular de los méritos de todos los integrantes de la bolsa, incluyendo la puntuaciones correspondientes al apartado b) del artículo 4.2.»

En el supuesto de que un año no hubiera proceso selectivo, a fecha 31 de diciembre se procederá a la apertura de las bolsas para la actualización de datos de las personas que ya están integrados en las mismas. Solo podrá haber una actualización al año.»

2.— Se adiciona un nuevo apartado 5 al artículo 2 de la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, con la siguiente redacción:

«5.— Cualquier apertura de las bolsas de trabajo, supondrá con carácter general la actualización de los datos de todos/as los integrantes de las bolsas.»

Artículo quinto.— Se suprime el apartado 4 del artículo 3 de la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia.

Artículo sexto.— Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 4 de la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de

funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko 2003ko azaroaren 20ko Aginduko 4. artikuluko 2. paragrafoaren testua, eta era honetan gelditu da:

«2.– Meritu orokorrak eta horien baremazio hauek izango dira:

a) Betetako zerbitzuak: puntu 1, sartu nahi duen lan-poltsari dagokion Justizia Administrazioako kidegoan bitarteko funtzionario legez lan egindako urte oso bakoitzeko. Urtera iristen ez diren aldiak proportzionalki kontatuko dira (0,0027777 puntu eguneko, hilabeteak 30 egunekoak izanik). Gehenez 15 puntu lortu ahal izango dira.

b) Sartzeko probak:

1.– 12 puntu, sartu nahi duen kidegorako deitutako azken oposizioko ariketa guztiak gainditzeagatik.

2.– 5 puntu, sartu nahi duen kidegorako deitutako azken oposizioko lehen ariketa gainditzeagatik.

b.1) eta b.2) paragrafoetako puntuazioa ezingo da metatu.

3.– Puntu 1, sartu nahi duen kidegorako deitutako azken oposizioko lehen ariketa egiteko aurkezteagatik, ez gaindituta ere.

Horretaz gainera, aurreko azken hiru oposizioetan gainditutako ariketetako bakoitzak puntu 1 balioko du 2000. urteko deialditik hasita.

c) Titulazioak:

1.– Kidego Orokorretako lan-poltsarako: 4 puntu, kidego horretan sartzeko eskatzen den titulazioa baino maila bat handiagoa daukaten eskatzaileentzat.

2.– Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoaren lan-poltsarako, 2 puntu Zuzenbidean lizentziatuak diren eskatzaileentzat.

3.– Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegoaren lan-poltsarako: 2 puntu lizentziatuak diren eskatzaileentzat.

4.– Laguntza Judizialeko Kidegoaren lan-poltsarako: 2 puntu diplomatura bat duten edo lizentzia baten 3 ikasturte gainditu duten eskatzaileentzat.

5.– Auzitegietako medikuen lan-poltsarako, honako meritu hauek ere baloratuko dira:

– Psikiatria, Traumatologia edo Anatomia Patologikoko espezialitatea: 6 puntu espezialitate horietako bakoitzeko.

– Auzitegi-medikuntzako espezialitatea: 3 puntu.

d) Euskara jakitea. Honela baloratuko dira hizkuntza-eskakizunak edo horien baliokideak:

funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, que queda redactado de la siguiente manera:

«2.– Los méritos de carácter general y su baremación son los siguientes:

a) Servicios Prestados: 1 punto por cada año completo de servicios como funcionario/a interino/a de la Administración de Justicia en el Cuerpo en cuya bolsa se pretende ser incluido/a, computándose proporcionalmente los períodos inferiores (0,0027777 por día, estableciéndose los meses como de 30 días), con un máximo de 15 puntos.

b) Pruebas de acceso:

1.– 12 puntos por haber superado todos los ejercicios de la última oposición convocada para el acceso al mismo Cuerpo en el que pretende ser incluido/a.

2.– 5 puntos por haber superado el primer ejercicio de la última oposición convocada para el acceso al mismo Cuerpo en el que se pretende ser incluido/a.

Los apartados b.1) y b.2) no serán acumulables.

3.– 1 punto por haberse presentado al primer ejercicio de la última oposición convocada para el acceso al mismo Cuerpo en el que pretende ser incluido/a, y lo haya suspendido.

Además, cada uno de los ejercicios aprobados en las tres oposiciones anteriores a la última se valorará con 1 punto, a partir de la convocatoria del año 2000.

c) Titulaciones:

1.– Para las Bolsas de trabajo de los Cuerpos Generales 4 puntos para los solicitantes que posean una titulación inmediatamente superior a la exigida para el ingreso en el Cuerpo de que se trate.

2.– Para la bolsa de trabajo del Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, 2 puntos para los/as solicitantes que sean Licenciados/as en Derecho.

3.– Para la Bolsa de trabajo del Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa: 2 puntos para los solicitantes que posean una Licenciatura.

4.– Para la Bolsa de trabajo del Cuerpo de Auxilio Judicial: 2 puntos para los solicitantes que posean una Diplomatura o hayan superado 3 cursos de Licenciatura.

5.– Para la bolsa de trabajo de Médicos Forenses, se valorarán, además, los siguientes méritos:

– Por especialidad en Psiquiatría, Traumatología o Anatomía Patológica; 6 puntos por cada una de estas especialidades.

– Por especialidad en Medicina Legal y Forense, 3 puntos.

d) Conocimientos de Euskera, valorándose la acreditación de perfiles lingüísticos o sus equivalentes de la siguiente manera:

- 1. hizkuntz eskakizuna: 1 puntu.
- 2. hizkuntz eskakizuna: 2 puntu.
- 3. hizkuntz eskakizuna: 4 puntu.
- 4. hizkuntz eskakizuna: 6 puntu.

Eskakizuna kreditatzerik ez dutenenei proba bat egingo zaie, hala eskatzen badute.

Eskatzaileek hizkuntza-eskakizunik edo baliokiderik kreditatu ezin badute, Kultura sailburuaren 1989ko azaroaren 17ko Aginduan araututako helduen euskalduntzeko prozesuaren hamabi mailak gainditu izana baloratuko da:

- HABEren curriculum zaharreko 1etik 6rako mailak: 0,1 puntu maila bakoitzeko. Gehienez 0,6 puntu emango dira.
- HABEren curriculum zaharreko 6tik 8rako mailak: 0,1 puntu maila bakoitzeko. Gehienez 0,8 puntu emango dira.
- HABEren curriculum zaharreko 8tik 12rako mailak: 0,1 puntu maila bakoitzeko. Gehienez 1,2 puntu emango dira.

Halaber, horrela baloratuko da Kultura sailburuak 2000ko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartutako helduen euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako mailak kreditatzea:

- Lehen maila: 0,6 puntu.
- Bigarren maila: 0,9 puntu.
- Hirugarren edo laugarren maila: 1,2 puntu.

Hizkuntz eskakizunen puntuaketari ezin izango zaizkio gehitu HABEren Curriculum zaharrean ezarritako mailen edo Kultura sailburuak 2000ko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartutako helduen euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako mailen puntuaketa; eta, ondorioz, guztietan puntuaketa handiena duena baloratuko da.

Adierazitako Aginduek araututako euskara mailak baloratu ahal izateko, baldin eta Agindu hau garatuko duen Ebazpenak finkatutako epean kreditatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bitarteko langileak kargugabetzeko agindua, bitarteko langileek betetako lanpostuak funtzionario titularrek betetzen badituzte.

1.- Egindako lege-aldaketaren ondorioz, Justizia Ministerioak eta arlo horretako eskuduntzak beren gain hartuta dituzten autonomia erkidegoek Justizia Administrazioarentzat lan egiten duten langileen lanpostuen zerrendak (LPZ) egin eta onartu behar dituzte, bakoitzari dagokion esparruan.

- Perfil 1: 1 puntu.
- Perfil 2: 2 puntos.
- Perfil 3: 4 puntos.
- Perfil 4: 6 puntos.

Se realizará una prueba para acreditar los perfiles lingüísticos a aquellas personas que no los puedan acreditar, y que así lo soliciten.

En el caso de que no se posea ningún perfil lingüístico o equivalente acreditado se valorará la superación de cada uno de los doce niveles del proceso de euskaldunización de adultos fijados por Orden de 17 de noviembre de 1989 del Consejero de Cultura:

- Niveles del 1 al 6 del antiguo Curriculum de HABE: 0,1 puntos por nivel con un máximo de 0,6 puntos.
- Niveles del 6 al 8 del antiguo Curriculum de HABE: 0,1 puntos por nivel con un máximo de 0,8 puntos.
- Niveles del 8 al 12 del antiguo Curriculum de HABE: 0,1 puntos por nivel con un máximo de 1,2 puntos.

Asimismo, se valorará la acreditación de los diferentes niveles establecidos por el Currículo Básico para la enseñanza del euskera a adultos, aprobado por Orden de 24 de enero de 2000, de la Consejera de Cultura de la siguiente manera:

- Primer nivel: 0,6 puntos.
- Segundo nivel: 0,9 puntos.
- Tercer o cuarto nivel: 1,2 puntos.

No serán acumulables las puntuaciones correspondientes a los diferentes perfiles lingüísticos, a los niveles de euskera del antiguo Currículo de HABE y a los niveles establecidos por el nuevo Currículo Básico para la enseñanza del Euskera a adultos, aprobado mediante Orden de 24 de enero de 2000, de la Consejera de Cultura, valorándose, en su caso, la puntuación más alta.

La valoración de los niveles de euskera establecidos por las mencionadas Órdenes se tendrá en cuenta si dichos niveles han sido acreditados dentro del periodo que se fije por la Resolución que desarrolle la presente Orden.»

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Orden de cese del personal interino cuando se cubra por funcionario/a Titular una plaza desempeñada por interino/a.

1.- La reforma operada exige se proceda, por parte del Ministerio de Justicia y de las Comunidades Autónomas con competencias asumidas, en sus respectivos ámbitos, a la elaboración y aprobación de las relaciones de puestos de trabajo (RPT) del personal al servicio de la Administración de Justicia.

2.– Lanpostuen zerrenda horiek onartzeak esan nahi du bitarteko funtzionarioa kargutik kenduko dela hark betetako lanpostua —LPZn zenbaki edo dotazio batez identifikatua— funtzionario titular batek bete bezain laster, Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Langileen sarrera, lanpostu-hornitze, eta lanbide-sustapenaren Arautegian jasotako prozesuen barruan, eta ez da aintzat hartuko hutsik edo bete gabe dagoen plazan bitarteko funtzionario bat baino gehiago dagoen, edo bitarteko funtzionarioek lan-poltsetan zer postutan dauden.

3.– Lehen paragrafoan araututakoa bete da Auzitegi-medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegi-medikuen plantillari dagokionez, eta horren ondorioz, bitarteko auzitegi-medikuen kargugabetzea arautzea ez dagokio jada Justizia Administrazioako auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko 2003ko azaroaren 20ko Aginduko 12. artikulua 1. zenbakiko bigarren paragrafoari.

4.– Azkenik, bitarteko funtzionarioen kargugabetzea erabakitzeke arrazoiei dagokienez, BJLOaren 467. artikuluan adinari buruz arautzen dena, Lege horren berraren 492. artikulua arautzen duela ulertuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Salbuespenezko sartzeak lan-poltsetan.

Salbuespenez, oraingo aukera honetan soil-soilik, eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoaren eta Prozesu eta Administrazio Tramitazio Kidegoaren lan-poltsetan sartzeko titulazioa ez duten pertsonen arazo konpontzeko, pertsona horiek maila bat beheragoko kategoriari dagokion kidegoan sartuko dira, ofizioz, kidego horretarako beharrezkoa den titulazioa baldute.

Administrazioarentzat egindako lanaren baremazioa 2003ko azaroaren 20ko Aginduko 4.2.a) idatz-zatian arautzen da, eta, horri dagokionez, beharrezko titulazioa ez duten pertsona horiei maila bat beherago dagoen kidegoan konputatuko zaie egindako lana, honako formula hau aplikatuz:

Jatorrizko kidegoan egindako lanegunak/2.

Bigarrena.– Dokumentazioa Aurkeztea.

Interesatuak aukera izango dute beraien ustez aintzat hartu ez zaizkien baldintzak betetzen dituztela edo meritua dituztela kreditatzen duten agiriak aurkezteko, baita eskabidean egindako akatsak zuzentzeko ere. Hori guztia egiteko, berariaz emango den ebazpenak ezarritako epea izango dute.

2.– La aprobación de dichas relaciones supone que el cese de un funcionario/a interino/a será la consecuencia inmediata de que la plaza que venía desempeñando, identificada ya con un número o dotación en la RPT, sea ocupada por funcionario/a titular en el seno de los procesos contemplados en el Reglamento de Ingreso, Provisión de Puestos y Promoción Profesional del Personal al Servicio de la Administración de Justicia, y ello con independencia de que exista en el órgano más de un funcionario/a interino/a en plaza vacante o desierta, o de la posición que ocupe en la bolsa de trabajo.

3.– La previsión contenida en el párrafo primero ya se ha cumplido en relación con la plantilla de Médicos Forenses destinados en el Instituto Vasco de Medicina Legal, y así el cese del Médico Forense Interino no se rige por lo dispuesto en el párrafo segundo del número 1 del artículo 12 de la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia.

4.– Finalmente, en cuanto a las causas por las que se puede acordar el cese de funcionario interino, la referencia al cumplimiento de la edad establecida en el artículo 467 de la LOPJ, debe entenderse hecha al actual artículo 492 de la misma Ley.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Integración excepcional en bolsas.

Con carácter excepcional, por esta sola vez y a fin de solucionar el problema de las personas que no poseen la titulación requerida para formar parte de las bolsas correspondientes a los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa y de Tramitación Procesal y Administrativa, dichas personas serán integradas de oficio en la Bolsa correspondiente al Cuerpo de categoría inmediatamente inferior, siempre que reúnan el requisito de titulación para este Cuerpo.

A estos efectos la baremación de los servicios prestados, aspecto contemplado en el artículo 4.2.a de la citada Orden de 20 de noviembre de 2003, a las personas que no dispongan de la titulación requerida se les computarán en el Cuerpo inmediatamente inferior los servicios prestados, aplicando la siguiente fórmula:

Días de servicios prestados en el Cuerpo de origen dividido por dos.

Segunda.– Aportación de documentación.

Los interesados/as tienen la oportunidad de aportar en el plazo que se determine en la Resolución que se dicte al efecto, la documentación acreditativa de estar en posesión de los requisitos y/o méritos que estime que no se le han tenido en cuenta, así como subsanar errores en que incurrió a la hora de realizar su solicitud.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egingo dira Justizia Administrazioiko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko Agindua betetzeko emandako ebazpenak, baldin eta Agindu honetan araututakoren aurkakoak badira. Hala gertatuz gero, Agindu hau aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 21a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

1782

EBAZPENA, 2005eko martxoaren 14koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, Justizia Administrazioiko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoetako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioen lan-poltsen deialdia egiten duen 2003ko abenduaren 29ko Ebazpena aldatzen duena.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak (2003-12-26ko BOE, 309. zenbakia) Aginte Judizialaren Lege Organikoa aldatu du, eta, ondorioz, beharrezkoa da 2003ko azaroaren 20ko Agindua indarreko araudira egokitzea; batik bat, Justizia Administrazioiko kidegoen izenari eta horietan sartzeko eskatutako titulazioari dagokienez. Egokitzen hori 2005eko otsailaren 21eko Aginduaren bidez egin da.

Giza Baliabideen Zuzendaritzaren 2003ko abenduaren 29ko Ebazpena (253. EHAA, 2003ko abenduaren 29koa), Justizia Administrazioaren zerbitzu, fiskaltza eta organo judizialak aldi baterako lanpostuetan lana egin nahi duten pertsonen zerrendak osatzeko eman zen. Ebazpen hori egin den erreformak ere ukitzen du, eta indargabetuztat ematen da 2005eko otsailaren 21eko Aginduan xedatutakoa urratzen duen heinean (Xedapen indargabetzaile bakarra).

Ekainaren 3ko JUS/1855/2004 Aginduaren bidez (2004ko ekainaren 17ko BOE eta 2004ko uztailaren 14ko EHAA), Justizia Administrazioiko Ofizialen Kidegoan txanda irekiaz sartzeko hautaprobak gainditu zituzten hautagaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratu zen. Maiatzaren 18ko JUS/1549/2004 Aginduaren bidez (2004ko ekainaren 1eko BOE eta 2004ko uztailaren 14ko EHAA), Justizia Administrazioiko La-

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas Resoluciones se hubieren dictado en aplicación de la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, si bien exclusivamente en cuanto se opongán a lo dispuesto en la presente Orden, en cuyo caso se aplicará ésta.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2005.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

1782

RESOLUCIÓN de 14 de marzo de 2005, del Director de Recursos Humanos, que modifica la de 29 de diciembre de 2003, por la que se convocan bolsas de trabajo de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes.

Tras la reforma de la Ley Orgánica del Poder Judicial operada por Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre (BOE n.º 309 de 26-12-2003), resulta necesaria la adecuación de la Orden de 20 de noviembre de 2003 a la vigente normativa, básicamente en lo relativo a la denominación y titulación exigida para el ingreso en los distintos Cuerpos al servicio de la Administración de Justicia. Dicha adecuación ha tenido lugar por Orden de 21 de febrero de 2005.

La Resolución de 29 de diciembre de 2003, de esta Dirección de Recursos Humanos (BOPV n.º 253, de 29 de diciembre de 2003), se dictó con el objeto de configurar las relaciones de personas que desean trabajar en la cobertura temporal de plazas en órganos judiciales, Fiscalías y Servicios de la Administración de Justicia. Dicha Resolución resulta afectada también por la reforma operada, entendiéndose derogada en cuanto se oponga a lo dispuesto en la Orden de 21 de febrero de 2005 (Disposición Derogatoria Única).

Por Orden JUS/1855/2004 de 3 de junio (BOE de 17 de junio de 2004 y BOPV de 14 de julio de 2004), se aprueba y publica la relación definitiva de aspirantes que han superado las pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Oficiales de la Administración de Justicia, turno libre. Por Orden JUS/1549/2004 de 18 de mayo (BOE de 1 de junio de 2004 y BOPV de 14 de julio de 2004), se aprueba y publica la relación de-